

Gipuzkoa zure esku!

Danel Solabarrieta Arrizabalaga
Elhuyar

Elhuyarren produktu berri hau formatu eta izaera ezberdineko bi jokok osatzen dute, eta gazteek aisialdia euskaraz gozatzeko eskaintza zabaltzera dator. 'Gipuzkoa zure esku: Maju robot suntsitzaileen aurka' Gipuzkoako hainbat herri zeharkatzen dituen abentura grafikoa da, eta 'Gipuzkoa zure esku: galdera-lasterketa', berriz, mahaiko jokoa.



ARTXIBOKOA

BAKARRIK ORDENAGAILUAN NAHIZ FAMILIA-REKIN edo lagunekin jolasteaz gain, jokalariak, aldi berean, Gipuzkoako herriak, historia, kultura, ingurunea, ohi-turak, etab. ezagutzeko aukera izango du.

'Gipuzkoa zure esku: Maju robot suntsitzaileen aurka' multimedia-jokoa

Alde batetik, ordenagailuan ibiltzeko jokoa daukagu, 'Gipuzkoa zure esku: Maju robot suntsitzaileen aurka'; hemen Gipuzkoa zeharkatzen duen abentura batean parte hartzeko aukera eskaintzen zaio gaztetxoari.

Jokoaren protagonista Maju izeneko neskatxa gipuzkoarra da, eta Gipuzkoari eraso dion Erots doktorearen plan maltzurren aurka egin beharko du. Horretarako Erots Doktoreak kostaldetan duen uhartea ezabatzea lortu beharko du Majuk. Baina ez da dena hain erraza izango, Erots doktoreak robot maltzur batzuk egin baititu. Robot horiek deabrukeriak egiten ari dira Gipuzkoako hainbat herritan eta, uhartera joan aurretik, Majuk aurre egin beharko die.

Jokalariak, jolasean dabilen bitartean, herri bakoitzeko toki adierazgarri batzuk ikusiko ditu. Herriak jokoaren korapiloa garatzen den testuingurua izango dira, eta jokalariak, abenturan murgiltzen den heinean, herrien ezaugarriak identifikatuko ditu, era oso ludikoan. Jokalaria Gipuzkoan dagoen aberastasunaz jabetzeko bide bat izan

daiteke, inguruan dituen eta ezagutzen ez dituen hainbat gauzaz ohartzean toki horiek benetan ezagutzeko jakinmina piztuko baitaio ziurrenik.

Jokoaren ezaugarriak

'Gipuzkoa zure esku: Maju robot suntsitzaileen aurka' ordenagailurako el-





ARTXIBOKOA

karrizketa-jokoa da, hau da, jokalaria jokoa agertzen diren pertsonaiekin elkarreaginean aritu beharko du, jokoa aurrera egiteko beharrezkoak diren objektuak lortzeko. Beste objektu batzuk, berriz, arkade-motako proba batzuetan lortu beharko ditu.

“Interneten ere ipiniko da, Elhuyarrek gaztetxoentzat duen ZerNola atarian”

Joko osoa Interneten ere ipiniko da, Elhuyarrek gaztetxoentzat duen atarian (www.zernola.net), eta edonork jokatu ahal izango du.

‘Gipuzkoa zure esku: galdera-lasterketa’ mahaiko jokoak

Bestalde, ‘Gipuzkoa zure esku: galdera lasterketa’ mahaiko jokoak ingurukoekin jolasteko aukera eskaintzen dio gaztetxoari: neba-arrebekin, gurasoekin, lagunekin, ikaskideekin eta abar. Beraz, harremanak estutzeko baliabide bat ere izan daiteke.


Joko hau Gipuzkoa zeharkatzen duen ibilbide batean egiten den lasterketa da, eta ibilbidea bukatzen duen lehena izango da irabazlea. ‘Antzara-jokoa’ mahaiko joko ospetsuaren itxurakoa da, baina berezitasun batekin: jokalaria, aurrera jarraitzeko, Gipuzkoari buruzko galderei erantzun beharko die laukitxo gehienetan. Bestelako laukitxo batzuk ere egongo dira: mugak, herrien laukitxoak, kartzelak eta abar. ☐

ZerNolako sariak

AURREKO ALEAN ARMIX AURKEZTU GENIZUEN, bere historia eta guzti. Eta horrez gain, izena eta historia asmatzeko lehiaketa irabazi zutenei saria emango zitzaiela ere esan genizuen.

Eta nola uste duzue pasatu zutela sari banaketan? Bada, primeran. Eider eta Maindi irabazleek eta beren ikasgelakoek Aquariumean hasi zuten eguna. Asko bertan egonak ziren; beste hainbat ez. Eta guztiak primeran pasa zuten. Bideo-emanaldian ederki erakutsi zuten umorea ere badutela.

Aquariumeko gidarien azalpenak entzun ondoren, Zientzia Museora bideratu ziren, planetariumeko emanaldia ikustera. Dena den, bidean Armix-en irudia zuen kamisetak banatu zitzaizkien, baita jantzi ere.



E. IMAZ

Emanaldia txoratzekoa izan zen; efektu berezi ikusgarriak ikusi genituen, ia-ia norbera bidaiatzen ari zela sinetsarazteko modukoak.

Azkenik, bazkariaren ondoren iritsi zen seguru asko Eider eta Maindik desio zuten unea. Armixen lagun batek bere oihaneko bizipenak kontatu eta bizikleta bana oparitu zien. Probatzeko aukera ere izan zuten irabazleek. Primeran, beraz.

Orain, hurrengo sariak eskuratzeko, ZerNola Olinpiadan parte hartu besterik ez duzue www.zernola.net-en.

ZerNola Olinpiadak azarotik aurrera!!!

sartu eta ikusi!

- Hilabete-hasieran proba bat. STOP. Sariak hilero. STOP. Ikaskideek elkarrekin parte har dezakete. STOP. Sari potoloak klasekide guztientzat. STOP. Animatu. STOP. Armix
- Baina...non?
- Den-dena www.zernola.net-en. Zorte on!!



Armix